

# Nortasun antisozialaren nahastetik psikopatiara, Tony King-en kasuaren bidez

Mikel Haranburu Oiharbide, Joana Esteve Okariz, Nekane Balluerka Lasa, Arantxa Gorostiaga Manterola eta Marian Soroa Udabe\*  
EHUko Psikologia Fakultatea, \*EHUko Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola

Gizartean ikusten ditugun hainbat arazoren jatorria nortasun antisozialaren nahastean aurkitzen da. Nahaste hori duten pertsona asko ez dira gizarteko arauetara egokitzen eta sufrikario ugari eragin ondoren, espetxean amaitzen dute. Baina, nahaste bera duten beste zenbait pertsona gizarteko erakunde politiko eta ekonomikoetan oso ongi txertatzen dira, eta erakunde horietatik kalte eta min handia egitera hel daitezke, gizarteko egitura horiek eskaintzen dieten proiektioari esker. Artikulu honetan, alde batetik, nortasun antisozialaren nahastearen bereizgarriak, zergatiak, garapena, diagnosi-irizpideak eta terapia aztertu ditugu eta, beste aldetik, nahaste hori eta psikopatia zertan bereizten diren agertu dugu. Nortasun antisozialaren nahastea eta psikopatia argitzeko Tony King-en kasua aurkeztu dugu, nahaste horiek argitzeko egokia izan daitekeelakoan.

GAKO-HITZAK: Nortasun antisozialaren nahastea · Psikopatia · Nortasunaren nahastea · Tony King.

## From antisocial personality disorder to psychopathy, through the case of Tony King

Many of the problems we see in our society originate from people with an antisocial personality disorder. A good percentage of these people do not conform to the norms of our society and end up in prison after causing much suffering in their environment. But others who have the same disorder can be integrated within the institutional, political and economic structure of society, and can cause great harm by taking advantage of the opportunities provided by such structures of society. This article, on the one hand, explores the characteristics, causes, development, diagnostic criteria and therapy of antisocial personality disorder and, on the other hand describes the differences between this disorder and the psychopathy. To illustrate the pathology of antisocial personality disorder we present the case of Tony King, which seems to respond to the profile both of the antisocial personality disorder and the psychopathy.

KEY WORDS: Antisocial Personality Disorder · Psychopathy · Personality Disorder · Tony King.

*Jasotze-data: 2011-05-19. Onartze-data: 2011-07-15.*

## 1. Sarrera

Amerikako Psikiatria Elkartearen Buruko Nahasteen Eskuliburuak (DSM-IV-TR: *The Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders*, 2000) nortasunaren nahaste dramatikoaren artean kokatzen du nortasun antisozialaren nahastea, nahaste nartzisista, mugako nahaste eta nahaste histrionikoarekin batera. Talde horretako nahasteen ezaugarri nagusiak hauek izango lirateke: emozioen ezegonkortasuna, portaeraren kontrolik eza, portaera nabarmen eta aurreanezinerako joera eta instrospektorako gaitasun eskasa.

Nortasunaren nahasterik aztertutena da nortasun antisozialaren nahastea. Nahaste hau duena gizarte-arauetara ez da egokitzen, erasokor ageri da, eta norberaren edo besteen segurtasunaz ez da kezkatzen. Baina, erasokortasunaren maila ezberdinak erakutsi ditzake. Nortasun antisozialaren nahastea duten pertsona guztiak ez dira kriminalak, nahaste hori dutenen artean talde txiki bat bakarrik joaten baita legearen aurka. Gizartean gertatzen diren krimen gehienak gaizkileen portzentaje txiki batek eginak dira. Nortasunaren nahaste antisozial arina aurki dezakegu gure gizarteko pertsona eta profesional askorengan, bereizgarri antisozial asko onartzen baititu gure gizarte lehiakor honek. Horrela, legearen mugetan, legesistemaren ahultasunak aprobetxatuz bizi izaten dira nahaste hau duten asko.

Pinel-ek (1801, 1806) nahaste mentalik gabe ekintza oldarkorrak eta inpulsiiboak egiteko joera moduan deskribatu zuen nahaste hau eta «eldarniorik gabeko mania» edo «zorotasun arrazoitzaile» izena eman zion; hain zuzen ere, nahaste honetan adimenaren hondamenik ez dago, errealitatearen zentzua ez dago galdua; gaitasun afektiboa bakarrik dago aldatua. Esquirol-ek (1837) borondatearen eta sentimenduen patologia eduki arren, adimen normala duen pertsona moduan deskribatu zuen nahaste hau duena.

Birnbaum-ek (1914) soziopatia deitu zuen nahaste hau, zeren ikaskuntza sozialaren eta familia-ingurumen desegokien emaitza zela pentsatzen baitzuen. Kraepelin-ek (1915), berriz, afektuen edo borondatearen gabezia moduan definitu zuen nortasun antisozialaren nahastea eta psikopatiarekin berdindu zuen. Baina, Kraepelin-ek nortasun anormal guztiak izendatzeko erabiltzen zuen nortasun psikopatiakoaren deitura.

Ikuspegi klinikotik psikopatia aztertu denean, bi joera nabarmendu izan dira: psikopatia nortasunaren bereizgarri moduan ulertu dutenen ikuspegia, eta psikopatia portaeraren nahaste moduan ulertu dutenena. Lehen ikuspegiaren adibide izango lirateke Cleckley (1941) eta Hare (1991). Bigarrenaren adibidea izango litzateke Amerikako Psikiatria Elkartaren DSM eskuliburua.

Hervey Cleckley-k (1941) psikopataren bereizgarriak deskribatu zituen *The Mask of Sanity* liburuan, eta horretan oinarrituta eraiki zuen Hare-k *Hare Psychopathy Checklist Revised (PCL-R)* (1991). Adimen-koefiziente normala, emozio txirotasunak, portaera arduragabeak eta erasokortasuna dituzten paziente moduan deskribatu zituen psikopatak. Pertsona horiek gaitasun gutxi dute besteen emozioak ulertzeko eta besteen sufrikarioaz konturatzeko. Beraz, ezin dute enpatizatu besteen minarekin eta sufrikarioarekin. Gainera, psikopatak biktimaren aparatu psikikoa ezabatu nahi izaten du, bere aurrean desarmatua gerta dadin.

Amerikako Psikiatria Elkartearen DSM eskuliburuaren argitalpen guztietan agertzen da nortasun antisozialaren nahastea. DSM-lean nahaste soziopatikoaren artean kokatu zuten nahaste hau. DSM-IIIan B clusterrean kokatu zuten, nahaste histrionikoarekin, mugakoarekin eta nartzisistarekin batera. DSM-III-Rak legehausteen zerrenda moduko bat egiten du nahaste hau deskribatzeko. DSM-IVak definizio psikologikoagoa ematen du: portaera gaizkilearekin batera konpromisoak gordetzeko gaitasunik eza, eskrupulu-gabezia eta arriskuaren mespretxua aipatzen ditu.

Osasunaren Mundu Erakundearen CIE-10 (1992) eskuliburuak nortasun disoziala deitzen du eta haren deskribapen klinikoagoa ematen du, funtzionamendu mentaleko aldagai batzuk aipatzen baititu, hala nola harreman iraunkorretarako gaitasunik eza, besteen sentimenduekiko sentikortasunik eza eta enpatiarik eza.

## **2. Nortasun antisozialaren nahastea duen pertsonaren ezaugarriak**

### **2.1. Portaera**

Nortasun antisozialaren nahastea duen pertsonaren oinarritzko bereizgarria da haren jokabide arduragabe, espontaneo, erasokor eta antisoziala. Portaera oldarkor eta erasokor hori helburu bat lortzera zuzendua egoten da eskuarki. Lortu nahi duena bereganatzea eragozten diotenen kontra eraso egiten du. Beraz, besteen eskubideak ez ditu errespetatzen eta gizarte-arauak hausten ditu.

Agindutakoa ez du betetzen, gezurretan ibiltzen da eta ez da fidagarria. Hori bai, xarmagarria izatera hel daiteke eta besteek entzun nahi dutena esan dezake, haien errukia edo sinpatia bereganatzeko eta haien manipulatzeko helburuarekin.

Nortasun antisozialaren nahastea duena ekintzara erraz pasatzen da, gogoe-tari, proiektuei edo emozioei lekuri utzi gabe. Zalantzaren eta ziurgabetasunaren aurrean ez du gogoetarako edo hipotesiak planteatzeko denborarik hartzen; aitzitik, bere barne-herstura arinduko duten erabaki inpuitsiboak hartzera joko du. Inhibitzeko gaitasunik ezaren ondorioz sortzen den oldarkortasunarekin batera, planifikatzeko gaitasunik eza da nahaste honen sintoma nagusia. Kinada desatseginen aurrean sortzen diren erantzun emozionalak eta portaerazko erantzunak ez ditu inhibitzen, eta ondorioz portaera erasokorrak eta emozio negatiboak agertzen ditu. Egiten dituen ekintzak zoriz erabakitzen eta burutzen ditu, norabide jakinik eman gabe, eta ingurumeneko ohitura, arau edo legeak kontuan hartu gabe. Ez da kooperatzailea. Gezurrak, liskarrak, lapurretak, bandalismoa, ihesaldiak eta ankerkeria fisikoa nagusitzen dira haren bizitzan. Ondorioz, espetxean amai dezake.

*Acting out*-a da antisozialak sarrien darabilen defentsa-mekanismoa. Barnean duen eraman ezinezko tentsioa ekintzaren bidez deskargatzeko bidea da *acting-out*-a. Besteen kontra doazen emozio, pentsamendu eta ekintzak modu irekian agertzeko joera inpuitsiboa agertzen du. Nortasun antisoziala duenak ez du moztortzen edo eraldatzen gizarteari desatsegina zaion portaera hori, baizik eta zuzenki egiten du.

Antisozialaren portaera-arazoan jatorrian frustrazio eramanezina eta inpulsiotasuna daude. Emozio erasokorrak agertzen ditu bere desirak betetzea eragozten dioten zailtasunen edo eragozpenen aurrean. Maitekor eta sinpatiko ager daiteke, baina haserretu egiten da gauzak berak nahi duen moduan ez doazenean, eta hitzeko erasokortasuna edo borroka fisikoa ager ditzake.

Nahaste antisozial arina duenaren portaera ausarta dela esaten da, eta nahaste antisozial larria duenarena, ausartegia, hau da, ausarta izatetik, bere buruarentzat eta besteentzat arriskutsu izatera pasatzen da; ez da kezkatzen bere buruaren edo besteen ziurtasunaz: auto-gidatze arriskutsua, harreman sexual arriskutsuak... Pertsona kementsu, indartsu eta menderatzaile moduan agertzen da sarritan: besteak menderatzeko joera indartsua du eta etsaitzat hartzen dituenekin mendekuzalea da. Bere burua zauritzera ere hel daiteke.

Ezegonkortasuna da nortasun antisozialaren bereizgarria. Sentipen-bilatzailea eta bulkadatsua da eta errutina edo asperra ezin izaten ditu eraman. Zaila gertatzen zaio eguneroko bizitzako ardurak betetzea eta aspergarriak gertatzen zaizkio enplegu egonkorraren eskaerak. Proiektu berriei ekitean ere ez du koherentziarik agertzen, bere bulkaden arabera aldatzen baititu. Arazoak izaten ditu betekizun ekonomikoei aurre egiteko edo lan-jarduera iraunkor bati eusteko. Zigorren eta arriskuaren aurrean ez du atzera egiten.

Drogak kontsumitzen azkar hasten dira antisozialak eta nahaste hori dutenen portzentaje handi bat drogen kontsumitzaile da. Drogaren bidez boteretsu sentitzen dira, gizarteari erronka egiten diote eta barne-herstura, erruduntasun eta depresio-sentimenduetatik askatzen dira. Gaixotasun fisiko edo psikologiko baten itxurak egin ditzakete, drogak eskuratzeko edo ardurei ihes egiteko.

## **2.2. Harremanak**

Nortasun antisozialaren nahastea duenak ez du harreman intimorik lagunekin, familiakoekin edo lankideekin. Besteekin hotza, sentikortasunik gabea, lehia-tzailea, erasokorra, kontrolatzailea, galtzaile txarra, mendeku-bilatzailea eta gupidagabea da. Besteak bere helburuak lortzeko bitarteko moduan erabiltzen ditu, baina ez dio horrek alhadura edo erruduntasun-sentimendurik sortzen. Besteen eskubideak zapaltzen ditu, helburuek bitartekoak justifikatzen dituztela pentsatzen baitu. Joera egozentrikoa eta manipulatzailea agertzen du, nartzisistak bezala. Besteak gezurren eta iruzurren bidez manipulatu saiatzen da, haiengandik etekina edo atsegina lortzeko.

Bere buruaz fidatzen da, baina besteez ez. Bere burua baino erasokorragotzat hartzen ditu besteak. Besteen asmo onak ezagutu ordez, haien iruzkin edo kritika arruntak distorsionatu egiten ditu eta bere kontra esanak balira bezala interpretatu. Etsaitzat edo mehatxu-iturritzat hartzen ditu besteak eta jarrera zelataria hartzen du haienganako. Besteen errukiaren eta altruismoaren aurrean fidagaitz jartzen da, pertsona arteko leialtasunaren sentimendu gutxi baitu. Besteen kontrolaren eta besteek mendeku hartuko duten beldur izaten da. Antisozialak pentsatzen du besteen mendeku-gosea dela bere erasokortasuna pizten duena, baina bere erasokortasuna eta sentikortasun-gabezia dira besteen erasokortasuna eta gogortasuna eragiten dituztenak. Besteenganako duen etsaitasuna, bere kontrako

besteen etsaitasun bihurtzen da. Ondorioz, mundua arriskutsua eta erasokorra dela pentsatzen jarrai dezake.

### 2.3. Estilo kognitiboa

Pentsamendu konkretua agertzen du nortasun antisoziala duenak; eztabaidari, alternatiba ezberdinei edo zalantzari toki gutxi uzten die haren pentsamenduak. Aro sentsoriorreko biziera darama, aurretiko eta ondorengo aurreikuspenik gabea.

Nortasun antisoziala duenaren patroik kognitiboak zurrinak, asertiboak, egozentrikoak, oldarkorak eta errealistak dira. Goi-mailako jomugarik eta mugapen etikorik ez du. Jomuga garbirik eta balio etikorik ezean, berehalako premiak asetzerak eta frustrazioak ekiditera doazen erabakiak hartzen ditu. Bere desira egozentrikoetatik ezin da aldendu.

Ekintzari ematen dio lehentasuna: «Ekintzak egiten ditut, beraz banaiz» da haren leloa. Gogoetaren, irudimenaren edo aurreikuspenaren aurretik jartzen du ekitea. Urgentzia-giro batean bizi da antisoziala eta ez du denborarik hartzen gogoetarako edo fantasiarako. Haren pentsamenduaren egitura mito eta ipuin gutxi ageri da; agertzen direnak ekintza eta esperientzia gordinen errepresentazioak dira. Errepresentazioak distantzia hartzea eta ekintza inhibitzea eskatzen du, baina ekintzaren inhibitioak ez du antisoziala asetzen eta ekintzara itzultzen da atsegina lortu nahirik. Bere ekintzen ondorio negatiboetatik ez du ikasten. Errepresentazio elaboraturik, malgutasun kognitiborik eta introspektiorako gaitasunik ez du agertzen. Ekintza inhibititu eta prozesu mentalak elaboratu ordez, ekintzen bidez kanporatzen ditu bere bulkadak eta jarrera fanatikoak hartzen ditu.

Kognizio sozialen arloan gabezia handia du nortasun antisozialaren nahastea duenak. Haren estilo kognitiboak ez ditu integratzen behar bezala gizarteko ohiturak eta arauak.

- Bere buruaz dituen kognizioak: «Zelatan egon behar dut», «Bizirauteko modu bakarra autosufiziente izatea da», «Besteei bultza egiten ez badiet, besteek egingo didate niri bultza», «Zerbait nahi dudanean, edozein bidetatik lortuko dut».
- Besteei buruzko kognizioak: «Garrantzirik ez dauka besteek nitaz pentsatzen dutenak», «Besteak beren burua zaintzeko gai ez badira, beren arazoa da».
- Etikari buruzko kognizioak: «Oihanean gaude eta indartsuenak aterako dira bizirik», «Agindutakoa betetzeak eta zorak ordaintzeak ez du garrantzirik», «Maltzurra izatea da nahi dena lortzeko modurik egokiena».

Nortasun antisoziala duenarengan nahaste semantikoak sarri gertatzen dira. Psikopatari zaila gertatzen zaio hitz neutroak eta karga emozionala duten hitzak bereiztea (Williamson, Harpur eta Hare, 1991). Pertsona normalak baino arazo gehiago izaten ditu eduki emozionala duten hitzak identifikatzeko (Williamson, 1991). Adibidez, ez du ulertzen «barkatu» edo «zoriontsu egin nauzu» esaldien esanahia. Izan ere, emozioei dagozkien hitzen prozesaketa ez baita berdin egiten antisozialengan eta normalengan.

## 2.4. Afektibitatea

Nortasun antisozialaren nahastea duenak emozioak erreprimitu egiten ditu, haietaz mesfidatu egiten baita. Goxotasunaz eta lankidetzaz mesfidatu egiten da eta ekidin egiten ditu intimitatea, maitekortasuna, altruismoa, errukia eta emozio goxoak. Emozio xamurrak (itxurakeria hutsa ez direnak) mespretxatu egiten ditu nortasun antisozialaren nahastea duenak, ahultasunaren seinale balira bezala. Besteen sentimendu, desira eta eskubideetan arreta gutxi jartzen du antisozialak. Bere burua indartsu eta independente ikusi nahi lukeenez, garrantzi handia ematen dio norberaren baieztapen bakartiari, eta mespretxatu egiten ditu emozioa, introspektzioa, sentimendua eta mina. Besteen sufrikarioarekin ez du enpatizatzen, haien sentimenduak ez ditu ulertzen, eta haien tokian ezin izaten da jarri.

Cleckley-ren (1941) arabera, psikopatak ezin izaten ditu bizi emozio positibo eta negatiboak. Beste autore batzuek (Patrick, Zempolich eta Levenston, 1997) diotenez, ordea, emozio negatiboak bizitzeko gaitasunaren falta agertzen du psikopatak, baina emozio atsegingarriak bizitzeko gaitasunen gabeziarik ez du agertzen. Horrela, antisozialak depresio eta barne-herstura gutxi agertzen du. Ingurukoek baztertzen dutenean beregan sortzen diren sentimenduetatik babestu egiten da. Antsietatea ezin izaten du eraman eta modu oldarkorren babesten da hartatik. Hala ere, emozio negatiboetatik babesteko joera agertzen duen arren, nortasun antisozialaren nahastea duenak depresioaldi luzeak jasan ditzake, gizartean baztertua izan delako. Ondorioz, antisozialen bizitza sexuala oso ezegonkorra izaten da, eta arriskuzko harremanak sarritan izaten ditu.

## 2.5. Bere buruaren hautematea

Nortasun antisozialaren nahastea duenak lehiakor, menderatzaile, autonomo, gogor, indartsu, egoskor, errealista eta kementsu ikusten du bere burua. Inguru-menaren, objektuen eta besteen gain kontrola eduki nahi izaten du. Garaipena eta boterea interesatzen zaizkio eta harro sentitzen da bere arrakastaz eta besteak zapaltzeaz. Besteek toki gutxi hartzen dute antisozialaren buruan, haiei buruzko fantasmarik, errepresentaziorik, igurikimenik edo itxaropenik ez baitauka.

Nortasun antisozialaren nahastea duenak batzuetan ezaugarri nartzisistak edukitzen ditu: handitzat dauka bere burua eta besteen gainetik egon behar du. Besteen onarpen mugagabea merezi duela iruditzen zaio eta merezi duena ematen ez badiote, iraindua izan dela eta jaso dituen irainengatik saritua izan behar duela pentsatzen du. Barnean duen hutsune edo ziurtasun-gabeziaren sentipena bete beharra dauka, horretarako besteek dutenaren jabe bihurtuz.

Nortasun antisozialaren nahastea duenak batzuetan ilusioak edo lilura sor ditzake gainerakoengan, haren sakoneko joera bestea menderatzekoa bada ere. Beste batzuetan, indartsua eta zaurtezina dela erakutsi beharra izango du eta horretarako portaera sadikoa baliatuko du. Portaera zakar hori gainerakoen begirunea irabazteko erabiltzen du. Lidergo erasokorraren bidez besteak mehatxatu eta beldurtzen ditu. Ingurukoek arreta erakarri eta haien gainetik jartzeko erabiltzen duen beste bide bat portaera arriskutsuak burutzea da: besteen begietara arriskutsuak diren egoeretan hotz eta zirkinik egin gabe mantentzen dira, modu horretan besteak inpresionatu ahal izateko.

### 3. Prebalentzia

Nortasun antisozialaren nahastearen maiztasuna % 3 ingurukoa da Amerikako gizonezkoengan eta % 1etik beherakoa Amerikako emakumezkoengan, DSM-IVaren arabera. Gizonengan maiztasun handiagoz gertatzen da nahaste hau (Torgersen, Kringlen eta Cramer, 2001).

Ikerketa batzuen arabera, gizonek eraso fisikoen eta hitzezko erasoen bidez agertzen dute portaera antisoziala. Emakumeek, aldiz, pertsona arteko harremanen bidez erasotzen dituzte besteak: zurrumuruak zabalduz, besteak baztertuz (Crick eta Grotmeter, 1995).

Portaera antisoziala haurtzaroan edo nerabezaroaren lehen etapan hasten da eta helduaroan jarraitzen du. Helduen populazioan, prebalentzia altuena 25 urtetik 44 urtera bitartean gertatzen da; 45 urtetik 64 urte bitartean asko jaisten da maiztasuna. Hiri-ingurunean herri-ingurunean baino maiztasun handiagoa du.

Nortasun antisozialaren nahastea maizago agertzen da klase baxuko pertsonen artean, ikasle unibertsitarioen artean baino.

Kultura arteko ikerketen arabera, nortasun antisozialaren nahastearen maiztasuna aldatu egiten da kultura batzuetatik besteetara. Nahaste hori bitxi samarra da gizarte tradizionaletan: Japonian (Sato eta Takeichi, 1993) edo Taiwan-en (Hwu, Yeh eta Chang, 1989). Kultura horietan familiak babes asko eskaintzen du portaera antisozialen aurrean. Europan eta Estatu Batuetan maiztasun handiagoa du, batez ere Bigarren Mundu Gerratik aurrera (Rutter eta Smith, 1995). Azken gizaldian gehitu egin da nortasun antisozialaren nahastearen maiztasuna.

### 4. Etiologia

Nahaste antisozialera eramaten duten faktoreak biologikoak nahiz ingurune-koak izan daitezke (Cadoret, Yates, Troughton, Woodworth eta Stewart, 1995). Faktore biologikoen artean aipatzekoak dira inpulsibotasuna eta sentipen-bilaketarako joera. Ingurumeneko faktoreen artean aipatzekoak dira maila sozio-ekonomiko baxua, gurasoen arteko gatazkak, diziplina inkoherentea (diziplina gogorra diziplina-gabeziarekin konbinatuta) eta sustantzien abusua.

Faktore biologikoak aztertzen hasita, zera ikusten dugu, familia berean sarritan nortasun antisozialaren nahastea duen pertsona bat baino gehiago aurkitzen direla. Biki monozigotikoak dizigotikoak baino gehiagotan etortzen dira bat kriminalitatean (Cadoret, Cain, Troughton eta Heywood, 1985). Elkarrekin bizi izan ez diren biki monozigotikoek elkarren antza dute nahaste honi dagokionez. Eskualde prefrontal eta tenporaleko zirkuituetan nahasteren bat gertatzen zaie, eta horrek eragotzi egiten die informazioa eta emozioak ongi prozesatzea (Elliot eta Gillet, 1992). Nortasun antisoziala dutenek garun-azalaren aktibazio txikiagoa eta mugimenduaren desinhibizio handiagoa dute. Amaren sabelean haurrak jasotako estrogenoen eta androgenoen eragina ere aipatzekoa da.

Amigdala eta hipokanpoa, eta haiek garunazal prefontalarekin dituzten loturak, garrantzitsuak dira emozioen kontrolerako, portaera erasokorrek inhibitzeko, zigorrak eta sariak aitzinatzen. Arlo horietako lesioek arazoak ekartzen dituzte emozioen-mailan. Nortasun antisozialaren nahastearen zergati biologikoen artean, aipatzekoa da ere sistema linbikoaren, bereziki amigdala-nukleoaren, estimulazio-maila txikia. Pertsona normalen garun emozionala aktibatu egiten da krimenaren aurrean; pertsona psikopaten garun emozionala ez da maila berean aktibatzen. Hitz neutroak balira bezala tratatzen dituzte egoera traumatizatzaileekin lotutako hitzak. Nortasun antisozialaren nahastea dutenek eskualde prefrontaleko materia grisaren gutxitze bat jasaten dute (Raine, Lencz, Bihrl, LaCasse eta Colletti, 2000). Bolumen txikiago hori dela-eta, beldurrarekin lotutako erantzun baldintzatuak eskuratzeko zailtasuna, arreta-gabezia eta erabakiak hartzeko gaitasunik eza agertzen du nortasun antisoziala duenak. Era berean, serotonina-maila baxua eta dopamina-maila altua portaera erasokor eta oldarkorrekin elkarturik agertzen dira (Bassareo, Tanda eta Di Chiara, 1995; Siever eta Trestman, 1993; Moss, Yao eta Panzak, 1990).

Nahaste disoziala (honela deitzen du nahaste hau CIE-10ak; CIE-10, 1992) kortisolaren maila baxuekin elkartua ageri da bai mutiletan (McBurnett, Lahey, Rathouz eta Loeber, 2000) baita nesketan ere (Pajer, Gardner, Rubin, Perel eta Neal, 2001). Testosterona-maila ere portaera antisozialarekin elkartua agertu da gerrako beteranoetan (Dabbs eta Morris, 1990).

Cleckley-ren arabera (1941), psikopatek jaiotzetik dute esperientzia emozionalak ulertzeko gaitasun-gabezia. Beren portaerak eragiten duen sufrikarioa ulertzeko gaitasunik ez dute. Psikopata batzuek psikologiako liburuetan ikasten dute gaizki tratatutako pertsonen zer sentitzen duten (Williamson *et al.*, 1991; Louth, Williamson, Alpert, Pouget eta Hare, 1998).

Portaera antisoziala eragiten duten ingurune faktoreen artean, aipatzekoa da gurasoen etsaitasuna. Gurasoen frustrazioa haurrarekiko etsaitasunaren bidez deskargatzen da eta gurasoen etsaitasunak haurren etsaitasuna eragiten du. Haurtzaroko tratatu txarrak, gurasoen irudiaren gabezia, abusu sexualak eta abandonua helduaroko nortasun antisozialaren nahastearen auresale onak dira. Nortasun antisozialaren nahastea dutenek beste nahasteak dituztenek baino probabilitate gehiago dute haurtzaroan abusu fisikoak jasandakoak izateko (Bernstein, Stein eta Handelsman, 1998). Txikitan abusu fisikoa jasan dutenek portaera erasokorrek, kriminalak eta antisozialak agertzen dituzte sarritan (Pollock, Briere, Schneider, Knop, Mednick eta Goodwin, 1990). Era berean, txikitan gurasoen afekturik izan ez dutenek edo axolagabekeriak tratatuak izan direnek gehiagotan jasaten dituzte nortasun antisozialaren nahastea, saiheskaria, mugakoa, menpekkoa, paranoidea eta eskizoidea (Arbel eta Stravynski, 1991; Norden, Klein, Donaldson, Pepper eta Klein, 1995).

Haurtzarotik agertzen dira antisozialarengan haserreak, gurasoen kontrako jarrera eta beste haurren kontrako erasokortasuna. Jokabide-arazoak dituen haurra sarritan eskolaz aldatu behar izaten dute, baina horrek ez du askotan haren moldaera hoberik ekartzen. Nerabezaroan larritu egiten dira portaera-arazoak: delinkuentzia, toxikomaniak eta sexualitate goiztiarra agertzen dira. Ondorioz, ezegonkortasuna da nagusi antisozialaren ikasketetan, lanean, afektibitatean.



Ingurumeneko beste faktore bat gurasoen eredurik eza da. Autoritate-irudirik gabe, haur hauek baztertuak sentitzen dira eta mundua toki hotz baten moduan bizi dute. Gurasoek agertzen duten axolagabekeria eta enpatia-gabeziaren ondorioz, giro desegokietan murgiltzen dira, gogortu eta lotsagabetu egiten dira eta beren buruaz bakarrik fidatzen hasten dira.

Nortasun antisoziala duena txikitan baztertua eta gaitzetsia izan denez, besteak mespretxatzen eta haietaz ez fidatzen ikasten du. Mendekuan eta gorrotoan oinarritutako elkarreragin eta portaeraren bidez babesten du bere burua. Gogoeta egin ordeztu eta errepresentazioetan murgildu ordeztu, modu konpultsiboan errepikatutako ekintzaren bidez bere burua baieztatzen du, eta horrela barne-herstura uxatzen du. Lehenari eta etorkizunari ihes egin eta orainean murgiltzen da. Erreferentzia soziokulturalak galdu egiten ditu, eta kultur saretik askatu ondoren, premia huts bihurtzen du atsegina.

Helduaroan antisozialak diren pertsonen haurtzaroan portaera antisozialak eduki izan dituzte gehienetan (Robins, 1978); baina, portaera-arazoak dituzten haur gehienak ez dira heldu antisozial bihurtzen. Haurtzaroan hiperaktibitatea eta portaeraren nahastea elkartzen direnean, helduaroan sarriagotan agertzen dira portaera antisozialak (Lynam, 1996; Loeber, Brinthaup eta Green, 1990).

Psikopata edo soziopata terminoak erabiltzen ditugu krimen latzak egiten dituztenak izendatzeko. Psikopatek nortasun antisozialaren nahastea pairatzeko aurre-disposizio konstituzionala dute eta osagai biologikoak dituzte. Soziopatak, berriz, biologia aldetik normalak dira, baina sozializazio-maila kaskarra lortu dute eta haurtzaroko esperientzia negatiboak eduki dituzte, guraso-eredu txarrak eduki dituztelako batik bat.

Haurraren sozializaziorako garrantzitsua da gurasoekiko atxikimendua. Atxikimendu positiborik izan ez dutenek bazterketa eta etsaitasuna bizi izaten dute bizitza osoan. Zaurgarrienak diren garaian, atxikimendu segururik ez dute eratu. Atxikimendu seguruaren esperientziarik gabe, eredu lasaitzailearekin ez dira identifikatzen eta gaitasun enpatikorik ez da lantzen. Ez dira norbere kontzeptuaren garapenerako eta besteez fidatzeko oinarriak jartzen. Horrela, nortasun antisozialaren eta bizitzako lehen bost urteetan amaren irudia urrun edukitzearen artean lotura sumatu zuen Bowlby-k (1944).

Pertsona arteko ikuspegitik, etorkizunean antisozial izango den haurraren gurasoak tarteka hezitzaile zorrotz bihurtzen dira. Arduratzen ez diren guraso izatetik, guraso zorrotz izatera pasatzen dira bat-batean. Iraunkortasunik gabeko heziketa horrek erresumina sortzen du. Nerabezaroan sartzean, independentzian eta gogortasunean oinarritutako autoirudi bat garatzen du antisozialak. Arau sozialez trufatzen da eta muga nahiz loturetatik askatzea da haren desira nagusia.

Ikuspegi dinamikotik begiratuta, nortasun antisozialaren nahastea duen pertsonaren supernia garatu gabea da. Nia garatzen da eta hark ematen dio mundu errealeko muga praktikoen berri. Baina, ez du supernia garatzen. Eta superniak berehalako sariari mugak jartzen ez dizkionean, nortasun guztia zerak eta atseginarekin printzipioak menderatzen dute. Zera norbere premietan zentratzen da eta nortasun antisozialak gizarteko arauak hausten ditu. Egozentrikoa da eta lotsarik

ez du sentitzen, kontzientzia moralik ez baitu. Antisozialek eta psikopatek super-  
niaren ahulezia dutenez, sariak lortzeko bitarteko bihurtzen dira besteak. Errealita-  
tearen printzipioaren garapenean bereizten dira psikopatak eta antisozialak: lehe-  
nak maltzurragoak eta trebeagoak dira muga sozialak gainditzerakoan; bigarrenak  
inpultsiboagoak dira.

Kontzientziak mugatzen ez duenean, saria lortzeko edozein bide arrazional  
erabiltzen du antisozialaren niak eta arau sozialak errespetatzen ditueanean, ez da  
moralki konbentzitu dagoelako, zigorra ekiditearren baizik. Harrapatua izateko  
beldurak sortzen dio barne-herstura antisozialari. Niaren barne-herstura erreala  
sentitzen dute, ez superniaren antsietate morala.

## 5. Garapena

Gurasoek modu inpultsiboan eta zigorra erabiliz tratatu izan dituzte nortasun  
antisozialaren nahastea garatu duten haurrak. Hezitzaileek indarra eta eraso-  
kortasuna erabili dituzte beren aginduak ezartzeko, eta bitarteko horiek erabiliz  
gauzak lortzen ikasi dute hurrek.

Nortasun antisozialaren nahastearen haurtzaroko eta nerabezaroko aurreka-  
riak nahaste negatibista desafiatazalea eta portaeraren nahastea dira. Baina,  
portaeraren nahastea dutenen portzentaje txiki batek bakarrik garatzen du nor-  
tasun antisozialaren nahastea. Nahaste hau ezin da 18 urte bete baino lehen  
diagnostikatu.

Haurren portaeraren nahastea helduen nortasun antisozialaren nahastearen  
aitzindaria da. Nortasun antisozialaren nahastearen irizpideek 15 urterako hasi  
behar badute ere, goizago hasteak nahastearen larritasun handiagoa adierazten  
du.

Ikertzaile batzuen arabera (Burke, Loeber eta Lahey, 2007; Stormshak, Bier-  
man, McMahon eta Lengua, 2000), nortasun antisozialaren nahastearekin erlazio-  
natua ageri da azal gogorreko nortasuna, nortasun krudela eta sentikortasunik  
gabea. Sentikortasun gogorreko pertsona hauek ez dira besteen baztertzearre-  
kiko batere sentiberak, eta portaeraren nahastetik nortasun antisozialaren nahastera  
sarriagotan eboluzionatzen dute.

Gaizkile batzuek portaera-patroi iraunkorra dute, haurtzarotik helduarora  
bitartean. Beste gaizkile batzuek nerabezaroan bakarrik egiten dituzte delituak.  
Beste batzuek, bizitako une ezberdinetan modu irregularrean egiten dituzte  
delituak. Badira, gainera, delituak egiten helduaroan hasten direnak ere.

Delitugileen ibilbidean lau fase bereiz daitezke:

- Fase kriminalaren aurrekoa (10-18 urte): hutsegiteak, lapurretak, emozio-  
bilaketarako ekintzak egiten dituzte nerabeen taldeetan.
- Fase kriminal goiztiarra (18-30 urte). Gutxitu egiten dira poliki-poliki delituak  
egiten dituztenak, baina gutxiengo batek aurrerapenak egiten ditu krimi-  
nalitatean. Delitu gutxiago, baina larriagoak. Kriminalen elkarteak eratzen  
dituzte eta sarri gertatzen dira espetxeratzeak.

- Aurreratua (30-40 urte). Askok uzten dute delitugintza fase honetan. Jarraitzen dutenak beren delitu-curriculumean aurrerapenak egiten jarraitzen dute. Eskalada bat gertatzen da.
- Kriminal heldua edo errea (40 urtetik aurrerakoa). Fase honetan delitugileen proportzio handiagoak uzten du delitugintza. Motibazioan eta balioetan aldaketak gertatzen dira. Asko krimenaren mugetan mantentzen dira.

## 6. Diagnostiko diferentziala

### 6.1. Nortasun antisozialaren nahastea eta beste nahasteak

Nortasun antisozialaren nahastea nahaste *paranoidearekin* sarritan konbinatzen da. 1. taulan agertzen ditugu nortasun antisozialaren nahastearen eta nahaste paranoidearen bereizgarri komunak eta ezberdinak.

#### 1. taula

Zertan dira berdinak eta zertan bereizten dira nortasun antisozialaren nahastea eta nahaste paranoidea dutenak?

<i>Nahaste paranoidea</i>	<i>Nortasun antisozialaren nahastea eta nortasun paranoidearen nahastea</i>	<i>Nortasun antisozialaren nahastea</i>
	Erraz haserretzen dira, beren askatasuna eta erabakitze gaitasuna jokoan daudenean.	
Antisozialak baino susmatzaileagoak eta mesfidatiagoak dira eta zaila gertatzen zaie erlaxatzea.	Besteen ekintza eta asmo gaiztoek justifikatzen dute hauen erasokortasuna.	Ez dira paranoideak bezain susmatzaileak eta mesfidatiak.
Beren buruan ziurtasun gutxiago dute.		Beren buruan ziurtasun gehiago dute.
Ertzeko antisozialek baino legez kontrako ekintza gutxiago egiten dituzte.		Ertzeko antisozialek paranoideek baino legez kontrako ekintza gehiago egiten dituzte.
Gogoeta apur bat egiten dute, besteen asmoak detektatu behar baitituzte ekintzara pasatu aurretik.		Modu inpulsiboan jokatzeko dute.

2. taulan agertzen dira nortasun antisozialaren nahastearen eta nortasun nartzisistaren nahastearen arteko kidetasunak eta ezberdintasunak:

## 2. taula

Zertan dira berdinak eta zertan bereizten dira nortasun antisozialaren nahastea eta nortasun nartzisistaren nahastea?

<i>Nartzisista</i>	<i>Nartzisista eta antisoziala</i>	<i>Antisoziala</i>
	Egozentrikoak dira; enpatia gabeak edo besteek sentitzen dutenarekiko axolagabeak dira. Gizarte-arauekiko destaina dute. Azalekotasuna, egiazaletasunik eza eta portaera ustiatzailea agertzen dituzte. Biak baliatzen dira beste pertsoenez.	
Ez dira antisozialak bezain aktiboak, oldarkorrak, iruzurtiak eta erasotzaileak.		Aktiboagoak, oldarkorragoak, iruzurtiagoak eta erasotzaileagoak dira.
Besteen mirespenaren eta bekaitzaren premia dute.		Besteen gaineko nagusitasuna behar dute.
Eguneroko tirabiren gainetik sentitzen dira.		Etsaiez inguraturiko mundu batean murgilduak sentitzen dira.
Nartzisistaren jokabideak ez dira irabazi materialei loturiko sentimenduetatik eratortzen, gaitasunei eta botereari loturiko sentimenduetatik baizik.		Superniaren gabezia handiagoa dute nartzisistek baino: ez dute erruduntasunik eta lege-hauste gehiago egiten dituzte.
Nartzisistarentzat, antisozialarentzat ez bezala, legeak ez dira txarrak eta zuzengabeak, baina besteek betetzeko eginak dira, ez norberak betetzeko.	Ukitu antisoziala duten nartzisistek nartzisistaren autokonfiantza eta antisozialaren portaera okerra konbinatzen dituzte. Besteen konfiantza lortu ondoren, haiak ustiatzen dituzte. Legearen mugetan jokatzeko dute, galarazpenik ez baitute barneratu. Beren bulkadak asebetetzera doaz, inolako enpatiarik eta alhadurarik gabe. Nartzisistaren egozentrismoa, enpatia-gabezia eta gehiagotasun sentimendua + antisozialaren inpulsi-botasuna eta jokabide erasokorra = psikopatia.	

*Mendeko* nortasunak eta nortasun *saiheskariak* barne-herstura sentitzen dute, baina *antisozialak* ezin du horrelako sentimendu bigunik agertu. Barne-hersturaren kontra defendatu egiten da, besteak erasoz.

*Histrionikoek*, *mugakoek* eta *antisozialek* manipulazioa erabiltzen dute eta oldarkorrak dira. Baina, antisozialak edo psikopatak menderatzeagatik edo saria lortzeagatik manipulatu du bestea. Mugakoak besteen sostengua eta arreta bilatu nahi izaten ditu manipulazioaren bidez. Histrionikoak arreta-zentro izateko manipulatu du, baina erasokortasunik ez du erabiltzen. Nahaste histrionikoa duenak ere, antisozialak bezala, iruzurra, sedukzioa eta manipulazioa erabiltzen ditu, baina ez du gizartearen aurkako portaerarik agertzen. Histrionikoaren oldarkortasuna haren estilo kognitibo barreiatutik dator; antisozialaren oldarkortasuna, berriz, berehalako saria lortu nahi izatek; mugakoaren oldarkortasuna hutsuneak edo despertsonalizazioak sortzen dituen barne-herstura sentimenduetatik dator. Antisozialaren inpultsibotasuna erasokortasunaren bidez agertzen da; mugakoarena, berriz, buru-hiltzearen bidez.

Nortasun antisozialaren nahastea eta alkoholismoa (nahaste duala) sarritan ikusten ditugu elkarrekin. Antisozialek erraz jotzen dute sustantzia arriskutsuak kontsumitzera. Sentipen berrien bilatzaileak direnez eta berehalako saria lortu nahi izaten dutenez, sustantzien kontsumora sarri jotzen dute. Sustantzien kontsumoari esker, erruduntasuna, barne-herstura edo depresioa alhora utz ditzakete, eta bote-rearen fantasian babes litezke. Hesselbrock eta lankideen arabera (Hesselbrock, Meyer eta Keener, 1985), alkoholikoen artean sarrien gertatzen den nahastea nortasun antisozialaren nahastea da, paranoidea eta mugakoa ere sarri agertzen diren arren. Joko patologikoarekin ere oso loturik ikusten da nortasun antisoziala (Bland, Newman, Orn eta Stebelsky, 1993).

## **6.2. Nortasun antisozialaren nahastea eta psikopatia**

Psikopatia eta nortasun antisozialaren nahastea teilakatu egiten dira, baina ez dira nahaste berdinak: psikopatia nortasunaren bereizgarriek definitzen dute batez ere; nortasun antisozialaren nahastea, berriz, portaeraren ezaugarriek definitzen dute (Lilienfield, 1994, 1998).

Ikuspegi kognitibotik, antisozialek eta psikopatek adimen argia dute eta logika bati jarraitzen diote, baina etorkizuna ez dute planifikatzen eta beren portaeraren ondorenak ez dituzte aurreratu. Beren desira egozentrikoetatik aldentzeko eta beren ekintzen ondorenetan beharrezkoa den arreta jartzeko ez dira gai.

Nortasun antisozialaren nahastea dutenen azpitalde bat osatzen dute psikopatek. Nortasun antisozialaren nahastea duenak alhadura sentitzen du, baina bere ekintzak ezin izaten ditu kontrolatu emozionalki berotua dagoenean, kontrola galtzen du eta inpultsiboki jokatu du. Bere ekintzen ondorenez gutxi kezkatzen da. Cleckley-k (1941) deskribatzen duen psikopata, bestalde, maltzurragoa da eta aurrez pentsatuta egiten ditu gauzak; ez du bulkada inpultsiboz edo desira indartsu batek eramanda jokatu; hotzean eta planifikazio zehatzez jokatu du. Leialtasunik eta alhadurarik ez du sentitzen, baina beste pertsona atzipetzeko gaitasuna badu. Besteek baliatzeko eta haiek ustiatzeko baimendua sentitzen da.

Errehabilitazio-ahaleginei erantzun txarra ematen die, eta espetxera sarritan berrizultzen da.

Psikopatia primarioa estilo epikoa edo ekintzarako estiloa duten pertsonengan ikusten dugu. Pertsona horiengan ekintzak hartzen du toki nagusia, eta pentsamenduak garatu gabea izaten da. Pentsamenduaren ahultasuna *acting out*-aren bidez konpentsatzen dute: beren burua ez deskompentsatzeko, ingurukoak deskompentsatzen dituzte (analizatzailea barne). *Acting-out* egiten duenak ekintza bihurtzen ditu analisisan aktibatutako fantasia eta arazoak: modu horretara, arazoaren erre-presentazioa eta analisi intelektuala ekiditen ditu; ekintzaren eremua eta ekintzaren bidez ebatzi nahi du erre-presentazioaren eta oroimenaren munduan ebatzi behar zuena. Horrela ekiditen du bere fantasia inkontzienteen hitzezko erre-presentazioa.

Cleckley (1941) ezaugarri afektibo, pertsonarteko eta portaerazkoetan oinarritzen da psikopatia diagnostikatzeko. Psikopatak familia egituratuetatik etortzen dira sarritan eta normalen itxura hartzen dute. Gezurti patologikoak dira eta bada-kite egoerak ebaluatzen eta egiazaletasunaren itxurak ematen. Kanpora agertzen duten mozorroaren atzean gordetzen da haien enpatiarik gabeko benetako izaera. Egozentrikoak, oldarkorak, arduragabeak, erruduntasun-sentimendurik gabeak eta gizarteko arauen hausleak izan ohi dira psikopatak. Hoztasunez eta alhadurarik gabe burutzen dituzte beren krimenak. Xarma, manipulazioa, bortxa eta mehatxua erabiltzen dituzte botere- eta kontrol-gosea asetzeko. Psikopata gehienak antisozialak dira, baina antisozial guztiak ez dira psikopatak. Antisozialak portaera-arazoak agertzen ditu, baina afektibitatearekin lotutako sintomak edo pertsona arteko harremanekin zerikusia duten sintomak ez ditu agertzen.

Cleckley-ren deskribapenean oinarrituta eraiki zuen Robert Hare-k (1991) psikopatia diagnostikatzeko PCL-R eskala (*The Revised Psychopathy Checklist*, PCL-R; Hare, 1991). Lau fazeta aztertzen ditu eskala horrek: 1) Pertsona arteko bereizgarriak: hitz-jarioa eta azaleko xarma; besteak manipulatu eta iruzurtzeko joera. 2) Bereizgarri afektiboak: alhadurarik eza, enpatia- eta sentikortasun-gabezia eta azaleko afektuak. 3) Estilo inpulsiboa: estimulazio beharra, ardurarik eza, epe luzerako jomugarik eza. 4) Bereizgarri antisozialak: portaeren kontrolrik eza; ekintza kriminalen aldakortasuna. Lehen bi fazetak nortasunaren bereizgarriekin erlazionatuta daude. Beste biek portaera desegokiarekin dute zerikusia. Eskala honen bidez egindako ikerketen arabera, psikopata guztiak ez dira delitugileak, eta delitugile guztiak ez dira psikopatak. Horrela, Cooke-k (1994) Eskoziako espetxeetan egindako ikerketaren arabera, gizon presoan % 3k bakarrik du psikopatia, PCL-Raren ebaketa-puntua kontuan hartuta. PCL-Raren arabera diagnostikatutako psikopatiak nortasun antisozialaren nahastea hobeto aurrezaten du, nortasun antisozialaren nahasteak nahaste psikopatikoa baino. Hart eta lankideen arabera (Hart, Forth eta Hare, 1991), psikopaten % 79ri nortasun antisozialaren nahastea diagnostikatu zitzaion; baina, nortasun antisozialaren nahastea zutenen % 30i bakarrik diagnostikatu zitzaion psikopatia. PCL-Rak ongi aurrezaten du nortasun antisozialaren nahastea, psikopata kriminal gehienek portaera antisozialak burutzen dituztelako.

Gaur egungo ikertzaile askok pentsatzen duenaren arabera (Marcus, John eta Edens, 2004), psikopatia ez da kategoria diskretu bat, dimentsio jarraitu bat baizik.

Psikopata guztiak ez dira berdinak. Eysenck-ek (1981, 1995), adibidez, psikopatia primarioa eta sekundarioa bereizi zituen. Psikopatia primarioaren bereizgarriak psikotizismoari dagozkionak dira: erruduntasun-, enpatia- edo sentikortasun-gabezia, portaera gaizkile eta erasokorretara eramaten duena (Eysenck eta Eysenck, 1976). Psikopatia sekundarioa kanporakoitasunaren eta neurotizismoaren elkartetik sortua da: nahaste hori duenak ekintza gaizkileak egiten ditu, baina erruduntasuna sentitzen du. Psikopatia primarioak gabezia emozional eta afektiboak eta berekoikeria agertzen ditu. Psikopatia sekundarioa nortasun antisozialaren nahastea da, portaeraren nahasteak eta gizartearen aurkako portaerak agertzen ditu, emozioen mailako sentikortasunik gabe.

Patrick (2000) eta Blair-ek (2003) bereizi egiten dituzte nortasun antisozialaren nahastea eta psikopatia. Nortasun antisozialaren nahastea duenak psikopatia sekundarioa du: portaeraren arazoak agertzen ditu, baina emozioen mailan ez du psikopatak adina nahaste. Psikopatia duenak psikopatia primarioa du: gabezia emozional eta afektiboak ditu. Psikopatak nortasunaren ezaugarri multzo bat eta portaera sozial desbideratuak ditu. Nortasun antisozialaren nahasteak, berriz, portaera gaizkileak agertzen ditu.

Psikopatiaren deskribapen gehien arabera portaera antisoziala ez da psikopatiaren bereizgarri zentrala (Cleckey, 1941; McCord eta McCord, 1964). Portaera desbideratua ez da psikopatiaren irizpide zuzena. Izan ere, psikopata askok ez dute portaera antisozialaren historiarik agertzen beren bizitzan. Portaera antisoziala bigarren mailako bereizgarri bat da psikopatian. Psikopatek badute arriskua portaera kriminalera lerratzeke, baina ez dira denak mundu horretan barneratzen. Psikopatiaren sintoma batzuek portaera antisozialaren zergati moduan jokatzeko dute. Horrela, norbere buruaren irudi puztuak bultzatzeke pertsona bat ekintza erasokorretara, besteak kontrolatzeko helburuarekin. Inpulsibotasunak, berriz, ekintza kriminalak egitera eraman dezake, bere ekintzen ondorenetan pentsatu gabe.

Hare-ren arabera (1993), psikopata asko ez dira inoiz espetxean egon. Profesio askotan ongi funtzionatzen dute, psikopatarik atsegin zaizkion kitzikapena, boterea eta dirua lortzeko aukera ematen duenean beren lanbideak. Beraz, sarritan ikusten ditugu pertsona psikopatikoa gizartean ongi integratuak. Kasu horietan psikopata «arrakastatsuez» hitz egin daiteke, nahiz eta hori ez den pertsonaren benetako arrakasta, besteen ahaleginaren eta sufrikarioaren bizkar eta besteen ongizatea kontuan hartu gabe eraikitako arrakasta delako. Beren helburuak lortzen ez dituztenean, haserretu eta zapuztu egingo dira, baina ez dute haserre hori tupustean eta inpulsiboki agertuko, antisozial soilek egiten duten moduan, baizik eta modu planifikatuago eta pentsatuago batean agertuko dute. Haserre horrek eramanda, gizartearen eta moralaren kontrako portaera asko egiten dituzte, baina saiatuko dira beraiek egindako arau-hausteen errua beste batzuen gain botatzen. Psikopata «arrakastatsuez» ari garenean, beren delituen errua besteen bizkarrera botatzeko gaitasuna dutenez hitz egiten dugu. Aldiz, beren portaeraren ondoren negatiboez gogoetarik egiten ez dutenak sarri ikusiko ditugu psikopataren esanetara eta aginduetara lan eginez arauak hausten.

## 7. Terapia

Terapiara nekez jotzen dute nortasun antisozialaren nahastea dutenek, kanpotik behartuta ez bada. Antisozialek enpatiarik, introspekzio-gaitasunik eta kontzientziarik ez dute. Harreman fidagarririk ezin dute eduki, gizarte-arauekiko begirunerik ez dute, beren ekintzen ondoren ezin dituzte aurrean eta iraganari buruz gogoeta egiteko gaitasunik ez dute. Ondorioz, gizarteak jarri behar dizkie mugak. Antisozialen lege-hausteen aurrean zigorra aplikatu behar izaten da modu iraunkorrean, ohiko terapiak ez baitute emaitza onik ematen. Edozelan ere, zigorrak erabiltzea baino errefortzu positiboak erabiltzea hobe da nortasun antisozialaren nahastea dutenekin, zigorrekin ikasteko gaitasunik ez baitute. Tratamenduaren eginkizuna hesi-lana edo euste-lana egitea izaten da. Terapeuta ezin da terapeutikoki neutroa izan pazientearen ekintza antisozialen aurrean.

Tratamendu dinamikoek ez dute emaitza positiborik ematen, nortasun antisozialaren nahastea dutenek tratamendurako motibaziorik ez dutelako, oldarkorrak direlako, ondraduak ez direlako, introspekziarako gaitasun gutxi eta *acting-out*-erako joera handia dutelako.

Tratamenduari ekin ala ez ekin erabaki behar da lehenengo. Tratamenduari ekiteko arrazoietako batzuk hauek izan daitezke:

- DSMko I. ardatzeko nahasteren bat edukitzea, adibidez, umorearen nahaste bat edo sustantzien abusua.
- Pazientea bere bizitza-estiloaz aspertua egotea.
- Kanpoko erakunderen baten (familia, espetxea...) laguntza izatea.
- Bere bizitzan esperientzia positiboren bat edukitzea, horrela terapeutarekin lotura errazkiago eratzeko.
- Portaera antisoziala oldarkorra izatea eta damu edo alhaduraren bat sentitzea.
- Espetxean instituzionalizatua ez egotea, hots, erakundetik irteteko desiratzeko.
- Portaera psikopatikoaren sustrai biologikoa indartsua denean, eragin gutxi dute tratamendu psikologikoen. Ekintzen bidez bere bulkada deskargatzeko joera du antisozialak, eta zaila da prozesu mentalen bidez haren emozioetara heltzea. Terapia egin ahal izateko, superniaren arrastoren bat eduki beharko luke. Tratatzeko zailak dira portaera psikopatiko larriak egiten dituztenak, inolako damurik edo arrazionalizaziorik ez baitute agertzen. Barneherstura edo depresio-sentimenduen presentziak itxaropen bat irekitzen dio terapiari.

Esperientziaduna behar du izan nortasun antisozialaren nahastea duena tratatu behar duen terapeutak. Antisoziala oldarkorra izan ohi denez, terapeutak prest egon behar du haren eraso fisikoei aurre egiteko. Terapeutak muga garbiak jarri behar ditu pazientearekin dituen harremanetan; mugak jarri behar dizkie pazientearen portaera mehatxatzaileei, proposamen sexualei, bisitaldiei, telefono-deiei edo lapurretei. Nortasun antisoziala duena etengabe saiatuko da terapeuta



manipulatzeko, harreman terapeutikoaren mugak gainditzen eta berretzat abantailak ateratzen. Espetxean, lanean edo eskolan bera defendatzeko eska diezaiotke pazienteak terapeutari. Gehiegizko familiaritasunez trata dezake terapeuta eta harreman artifizialak landu ditzake harekin, dagokion roletik aterarazi eta egokia ez den portaera bat hari eginarazteko. Terapia-saioretan gerta daitezkeen erasoetatik babesteko bideak edo laguntzak eduki behar ditu terapeutak.

Antisoziala saiatuko da kanpoko mugak hausten eta aldaketa-itxurak egiten. Antisoziala terapeuta iruzurtzen saiatuko da, benetakoa ez den damua agertuz. Baina, aldaketak, benetakoa izateko, poliki-poliki gertatu behar du. Terapeutak ikusi behar du damua eta erruduntasun-sentimendua agertzen direla pazientearengan.

Antisozialek ez dute eduki berotasun afektiboa emango dien irudi finkorik. Gurasoen axolagabetasunaren aurrean beren buruak autonomoki babesten ikasi dute. Horregatik, familia desegituratuekin terapian egin beharreko lana garrantzitsua da. Gurasoekiko lotura zitura eta sendoa eraiki behar da. Terapiaren azken jomuga antisozialarengan atxikimendu-sentimendua sortzea da (Benjamin, 1996). Itun terapeutiko bat sortu behar da pazientearen eta terapeuta artean, zeinak terapeuta iruzurtzeko desira gainditzera eramango duen pazienteak. Baina, horretarako, konfiantza sortu baino lehen etsaitasuna aztertu eta irteera bilatu behar dio.

Bere portaerak beregan eta besteengan dituen ondorenak ezagutu behar ditu antisozialak. Portaera erasokorrak inhibitzen irakatsi behar zaio antisozialari. Horretarako, portaera horien bidez pazienteak lortzen dituen sariak eta onurak ezagutu behar dira. Kontuan eduki behar da, espetxean portaera erasokorren bidez errefortzu positiboak lor ditzakeela. Horregatik, garrantzitsua izango da inguruarena berrantolatzea.

Antisozialentzat atseginak gertatzen dira ekintza erasokorrak, horien bidez bulkaden tentsioa askatzea lortzen baitute. Baina, portaera erasokorrak gutxituz gero, bizitzan hobeto joango zaiola ikustera heldu behar du. Pazienteak terapeutaekin batera honako hau aztertu behar du: portaera erasokor horiek zein egoeratan agertzen dituen, zerk haserrarazten duen eta haserretzean zer sentipen fisiko, umore-egoera eta kognizio izaten dituen. Eztanda afektiboa noiz gertatzen den aztertu ondoren, eztanda hori agertzen denerako estrategia alternatiboak landu behar ditu: bizigabeko objektuetara erasokortasuna gidatu, erlaxatu, ariketa fisikoa egin. Turkat-ek (1990) dio haserrearen kontrola eta bulkaden kontrola eskuratu behar dituela antisozialak. Haserrea sortzen dioten kinaden hierarkia antolatzen du eta erlaxazio sakona eta distrakzio kognitiboa erabiltzen ditu.

Terapia kognitiboaren bidez eragiketa konkretuetatik pentsamendu abstraktura pasatzen ikasi behar du nortasun antisoziala duenak. Era berean, bere ekintzek besteengan dituzten epe luzeko ondorenak ezagutzen ikasi behar du. Hori lortzeko, lehenetsiak ezarri behar dira eta portaera egokiena zein den ondorioztatu baino lehen, alternatiba ezberdinak aztertu behar dira. Portaera desegokiak gutxitzea da helburua.

Antisozialaren tratamenduan pentsamendua sartu behar da bulkadaren eta ekintzaren artean. Ekintzaren ondorenak aurreikusten eta ekiditen ikasi behar du.

Gainera, bere ekintzak eta egoera emozionalak lotzen ikasi behar du. Portaera inplutsibo edo erasokorren ordeztu, ekintza planifikatuagoak, inplutsibotasuna gutxiagokoak egin behar ditu. Kanpoko egozpena egiteko joera, ardura-gabezia, eta arazoak ebazteko estrategia anizkoitzen gabezia gainditu behar dira.

Guraso eta irakasleek trebetasun berriak irakatsi behar dizkiete portaera antisozialaren nahastea duten gaztetxoei. Besteen intentzio txarrei buruzko igurikimenak aldatzen saiatu behar dute, erabakiak hartzeko estilo inplutsiboa inhibitu eta kontrolatu behar dute, jendearen sentimenduekiko enpatiko izaten ikasi behar dute. Erlaxazio-teknikak irakatsi behar zaizkie, portaera erasokorra eragiten duten aktibazio-maila eta haserreka ekiditeko. Esku-hartze batzuen bidez portaera positiboak indartzen eta negatiboak iraungitzen entrenatu egin behar dira gurasoak.

Terapiari zehar, arazoa gertatzen den eskualdeko distorsio kognitiboak identifikatu behar ditu: «Nire pentsamenduak eta sentimenduak zuzenak dira», «Nire ekintzak egokiak dira, nik egokitzen jotzen ditudalako», «Besteek pentsatzen dutena bost axola zait».

Nortasun antisozialaren nahasteari aurre hartzeko, gatazkak ebazteko eta trebetasun sozialetan entrenatzeko programak edo arreka-gabezia hiperaktibitatearekin nahastea tratatzeko programa aplikatu liteke haur eta gaztetxoentzat tratamendurako.

Emozio bat beste batez, kognizio bat beste batez ordezkatzeko ikasi behar du. Haserreka ordezkatu nahi bada, haren hurbileko emozioak bereganatu behar ditu: tristura, apaltzea, frustrazioa. Emozio horiek ezagutu, esplizitatu eta onartu behar ditu, eta haserrearen ordeztu emozio horiek biziko ditu. Era berean, arrotzak zaizkion beste sentimenduak ezagutzera ere eramane behar da pazientea: sinpatia, umorea, konfiantza.

Pertsona arteko gogortasun emozionala tratatzea garrantzitsua da, besteenganako sentikortasunik ez dutenek aldaketari erresistentzia gehiago jartzen baitiote, sentikortasun biguna dutenek baino. Gurasoek eta irakasleek enpatia hobetzen eta besteengan ikuspegia hartzen irakatsi behar diete gazteei. Besteen sentimenduak eta norberaren ekintzek besteengan dituzten efektuak ulertzen irakasten du enpatiarako entrenamenduak. Entrenamendu hori onuragarria da antisozialekin, baina psikopatekin kaltegarria izan liteke, beste pertsonen sentimenduei buruzko informazioak lagun baitiezaieke manipulatzailerik eta harrapari hobeak izaten. Horregatik, terapiak ez du prozesu kognitiboetan bakarrik zentratu behar, baizik eta prozesu afektiboetan eta pertsona arteko sentimenduetan ere zentratu behar du, hau da, pertsona arteko harremanetan gozatzeko irakatsi behar du.

## **Tony King, Holloway-ko iratortzailea**

### **Biografia**

Tony Bromwich Londresen jaio zen 1965ean. Haurtzaro gogorra izan zuen eta hamabi urte eman zituen erreformatorioetan. 1986an 10 urteko espetxe-zigorra eman zioten, 15 eta 33 urte arteko bost emakume sexualki erasotzeagatik. Inkontziente uzteraino eraso zituen, eta egoera inkontzientean zeudela bortxatu

egin zituen. 1991n behin-behineko askatasunean irten zen, baina handik bi hilabetera berriro espetxeratu zuten, emakume bat aizto batez erasotzearen.

Kondena beteta 1996an irten zenean, bere lehen emaztea izango zena ezagutu zuen eta izena aldatu zuen. Aurrerantzean Tony King izango zen. 1997an bortxaketa berri batez akusatu eta polizia hura atxilotzen saiatu zen, baina Espainiako Costa del Sol-era joan zen. Britainiarrek ez zuten estradizioa eskatu, ez baitzuten behar adina froga. 1998an, Amanda Dowler-en heriotza ikertzen ari zenean, polizia ingelesak egiaztatu zuen Tony King Espainian zegoela eta hango polizia jakinarazi zion arriskutsua izan zitekeela Espainiako neska gazteentzat.

Rocio Wanninkhof 1999an desagertu zen Mijas-en (Malagan), eta handik hilabetera hilda agertu zen, biluzik eta labankadekin. 2000n Dolores Vázquez, Rocíoren amaren bikote izandakoa, atxilotu zuten, Rocíoren hiltzaile izateaz akusatuta, froga zehatzik gabe. Ondoren, 2001ean, herri-epaimahai batek erruduntzat jo zuen eta Malagako Audientzia Probintzialak 15 urteko espetxe zigorrera kondenatu zuen. Baina, 2002an Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiak sententzia ezabatu eta Dolores aske utzi zuen, fidantzapeko askatasunean.

Sonia Carabantes-en hilotza 2003an agertu zen, Coin-en (Malagan), buruan jasotako kolpeen eta iratotzearen ondorioz hilda. DNA frogek Sonia Carabantes eta Rocio Wanninkhof-en erailketak erlazionatu zituzten.

Tony King 2003ko irailaren 18an atxilotu zuten. Atxiloketa horretarako garrantzitsua izan zen Tony-ren bizikideak emandako informazioa. Hain zuzen ere, Sonia Carabantes desagertu zen gauean, King-ek hatz-marka batzuk zituen aurpegian eta odol-arrastoak jantzietan. DNA frogen bidez identifikatu zuen poliziak Tony King, Sonia Carabantes eta Rocio Wanninkhof-en hiltzaile moduan. Tony King-ek onartu zuen neska horien hiltzailea zela.

Gaur egun, Tony King 62 urteko espetxe-zigorrera kondenatua dago: 36 urte, Sonia Carabantes erailtzeagatik; 19 urte, Rocio Wanninkhof-en heriotzagatik; 7 urte, Benalmadenako emakume bat bortxatzeagatik. Gainera, Scotland Yard ikertzen ari da Tony King erlazionatua ote dagoen Amanda Dowler (13 urteko neska) eta Sara Cameron-en (23 urtekoa) hilketa eta bortxaketekin.

## **Profil psikologikoa**

1986an kondenatu zuen epailari britainiarraren arabera, Tony-ren inpotentzia sexuala zegoen haren portaera kriminalaren oinarrian. Inpotentzia horrek desira sexuala asebetetzea galarazi eta frustrazioa sortzen zion. Eta Tony-k ezin zuen frustrazioa eraman.

Tony hotza, kalkulatzaila eta egozentrikoa da, kanpora begira azaleko xarma bat agertzen badu ere. «Bere alabarekin oso ona zen eta nireekin ere bai, eta inoiz ez zuen bortxarik erabili nirekin», esaten zuen Sonia Carabantes hil zuenean berarekin bizi zen emakumeak. Txikitan enuresia eta dislexia-arazoak eduki zituen, eta horien ondorioz besteen isekak jaso zituen. Autoestimua baxua, frustrazio-sentipena eta erasokortasun-maila handia erakusten zituen. Beste pertsona bat izan balitz bezala hitz egiten zuen berak egindako hilketez.

Amak maitasun baldintza gabea zion. Poliziak Tony King atxilotu zuenean, ohar bat utzi zuen atearen ondoan: «Baldintza gabe maite dut nire semea, hiltzen naizen egunera arte. Ez dut sinesten harengatik esaten den guztia, eta badakit gezur asko esan direla ere».

Malagako psikologoek auzitegiarentzat 2004an egindako adituen txostenaren arabera, Tony-k nortasun antisozialaren nahastea du eta bere gaitasun mentalak kontserbatzen ditu. Hau da, badaki zer egiten duen, nahiz eta ekintza horiengatik erruduntasunik edo alhadurarik ez sentitu.

Garrido eta López-en arabera (2006), Tony King-ek bereizgarri psikopaticoak, desbiderapen sexualak eta delituak egitera eramaten duten konpulsioak sentitzen ditu:

- Portaerari dagokionez, arriskurako joera, sentipen berrien bilaketa eta oldarkortasuna agertzen ditu. Pertsona arteko harremanetan, enpatia-gabezia (biktimei eragiten dien sufrikarioa), besteen ongizate eta eskubideekiko mespretxua, egozentrismoa, harrokeria eta manipulazioa aurkezten ditu. Emozioei dagokienez, beste pertsonetikiko lotura-gabezia, afektuen azalekotasuna eta erruduntasun-sentimenduen gabezia agertzen ditu. Ondorioz, kriminalitatean azkar hasi zen, erreformatorioetako egonaldiek adierazten duten moduan.
- Desbiderapen sexualak honako portaera hauetan agertzen dira: neskek hil eta gero ukitu; inkontziente edo hilda zeuden neskei egindako ukipenetan pentsatuz edo iheska zihozten edo beldurturik zeuden nesketan pentsatuz masturbatu; nekrofilia eta sadismoaren fantasmak hobesten ditu, harreman normalekin erlazionatutako fantasmen aurretik; ez du interesik agertzen bere bikotekidearekin harreman sexualak edukitzeko; emakumeekin harremanean jartzen denean, bere harrapakinaren atzetik doan ehiztariaren moduan sentitzen da; jarrera sadikoa hartzen du biktima eraso, jo, arrastaka eraman, labankadaz josi eta gero hura ukitzen hasten denean.
- Biktimari bizitza kendu eta hartaz abusatzeko boterea duela sentitzeko premia edo konpulsioa. Konpulsio hori da goizeko ordubietan ohetik jaiki, bikotekidea ohean utzi, kalera irten, biktima aukeratu eta hari erasotzera eramaten duena. Lortzen duen atsegina erabiltzen duen bortxari lotua dago. Kitzikapen-maila biktimari eragiten zaizkion eraso eta zaurien mailan dago.

Ondorengo taulako (3. taulan) ezkerreko zutabean nortasun antisozialaren nahastearen bereizgarrien zerrenda jartzen da. Eskuineko zutabean, Tony King-ek bereizgarri horiek badituen ala ez aztertzen da.

### 3. taula. Nortasun antisozialaren nahastearen bereizgarriak eta Tony King-en ezaugarriak

<i>Nortasun Antisozialaren Nahastea, DSM-IV-TRaren (American Psychiatric Association, 2000) arabera</i>	<i>Tony King-en bereizgarriak</i>
<p>A. Besteen eskubideekiko mespretxua eta haien bortxatzea dakarren portaera-patroi orokorra, 15 urtetik aurrera agertzen dena, honako item hauetako hiru edo gehiagoren agerpenak erakusten duena.</p> <p>Legearen aurrean duten portaera ez da egokitzen gizarte-arauetara, eta atxilotzeko motiboa ematen duten ekintzak egiten dituzte modu errepikatuan.</p> <p>Zintzotasunik eza: gezur errepikatuak, ezizenen erabilera, besteei iruzur egin beren probetxurako edo atseginerako.</p> <p>Oldarkortasuna edo etorkizuna planifikatzeko gaitasunik eza.</p> <p>Arduragabekeria iraunkorra, lana iraunkorki mantentzeko edo eginkizun ekonomikoez arduratzeko gaitasunik ezak adierazten duen moduan.</p> <p>Haserrekortasuna eta erasokortasuna, etengabeko borroka fisikoek edo erasoek adierazten duten moduan.</p> <p>Zuhurtasunik gabeko axolagabekeria, beren eta besteen ziurtasunagatik.</p> <p>Alhadurarik ez dute sentitzen. Besteei egiten zaizkien tratu txarren eta lapurreten aurrean axolagabe agertzen dira eta ekintza horiek justifikatu egiten dituzte.</p>	<p>Erreformatorioetan 12 urte egin zituen. Ingalaterran 10 urte egin zituen espetxean. Espainian 55 urteko espetxe-zigorra dauka.</p> <p>Bere delituen eta delitu horietan inplikaturako pertsonen bertsio ezberdinak ematen dizkio poliziari. Lurraldez eta izenez aldatzen da. Ingalaterran espetxean zergatik egon zen azaltzean, gezurra esaten du.</p> <p>Ez da gai bere alabaren etorkizuna planifikatu eta ziurtatzeko. Bere etorkizuna eta alabarena hondatuko duten delituak egitera behartua sentitzen da.</p> <p>Espetxean egona izateak ez du eramaten berriro espetxera eramango duten delituak ekiditera.</p> <p>Hilketak egiterakoan ez du planifikazio handirik egiten. Aztarna asko uzten ditu delituen gunean eta delituak egin ostean, etxeratzean.</p> <p>Inoiz ez du damurik sentitu egin dituen delituengatik.</p>
<p>B. Diagnostiko hau emateko, subjektuak 18 urte eduki behar ditu gutxienez.</p>	<p>Tony King-ek 18 urte baino gehiago ditu nortasun antisozialaren nahastea diagnostikatzen zaionean.</p>
<p>C. 15 urte baino lehen hasten den nahaste disozial baten frogak badaude.</p>	<p>Nortasun antisozialaren nahastearen frogak 15 urte baino lehen hasi ziren.</p>
<p>D. Portaera antisozialak ez du eskizofrenian edo sasoi maniakoan bakarrik gertatu behar.</p>	<p>Tony King-en portaera antisoziala ez dago eskizofrenia bati edo pasarte maniako bati loturik.</p>

Hirugarren taulan egiazta daitekeenez, Tony King-ek betetzen ditu nortasun antisozialaren nahastea diagnostikatzeko DSM-IV-TR eskuliburuak eskatzen dituen irizpideak. Oro har, Tony King-ek betetzen ditu psikopatiaren irizpideak: portaeraren desbiderapenari dagozkion Hare-ren PCL-R eskalako irizpideak

betetzen ditu; nortasunaren sentikortasunik ezaren, gogortasunaren eta enpatiarik ezaren baldintzak ere betetzen ditu; baina ez du betetzen ekintzen planifikazio zehatz eta hotzaren baldintza. Baina, hori, segur aski, bere ekintza basatiak alkoholaren eta drogen efektupean egiten dituelako izango da. Horregatik, hotzean pentsatuta, gero, berriro hilketaren eszenara agertu izan da, hilotza lekuz aldatzera edo aztarnak ezabatzen.

## Ondorioak

Nortasunaren nahasteen artean aztertuenetakoa da nortasun antisozialaren nahastea, gizartean arazo asko sortzen dituelako. Baina, esan dugun moduan, antisozial guztiak ez dira joaten legearen aurka. Badira gizartean ongi kokatuak edo integratuak dauden antisozialak ere.

Antisozialak sentipen-bilatzaileak dira eta sentipen horien bila dabilzala, ez dira kezkatzen beren buruen eta besteen ziurtasunaz. Antisozial horietako batzuk oldarkorrek eta erasokorrek dira; ekintzara erraz pasatzen dira, beren ekintzen ondorenez pentsatzeko eta gogoetarako ez baitute denborarik hartzen. Aldiz, beste antisozial batzuek hotzean planifikatzen dituzte beren ekintzak. Ikuspegi horretatik bereizi dira nortasun antisozialaren nahastea dutenak eta psikopatak.

Nortasun antisozialaren nahastea dutenek erruduntasuna eta alhadura senti ditzakete eta beren emozioak kontrolatu ezin dituztelako egiten dituzte ekintza erasokorrek. Aldiz, psikopaten erasokortasuna maltzurragoa da: ez dute alhadurarik sentitzen eta ez dute bulkaden eragin inpulsiboz jokatzeko; beren ekintzak zehazki planifikatzen dituzte.

Ondorioz, gizartearen kontra doan jokaera desbideratua, espetxearekin zigortzen dena, ez da psikopataren portaerarik behinena. Psikopata guztiak ez dira delitugileak eta delitugile guztiak ez dira psikopatak. Era berean, nortasun antisozialaren nahastea duten guztiak ez dira psikopatak. Psikopatek nortasun antisozialaren nahastea dutenen azpimultzo bat osatuko lukete.

## Bibliografia

- American Psychiatric Association. (2000): *Diagnostic and statistical manual of mental disorders* (DSM-IV-TR; 4. ed., testu orraztua), American Psychiatric Association, Washington, DC.
- Arbel, N eta Stravynski, A. (1991): "A retrospective study of separation in the development of adult avoidant personality disorder", *Acta Psychiatrica Scandinavica*, **83**, 174-178.
- Bassareo, V.; Tanda, G. eta Di Chiara, G. (1995): "Increase of extracellular dopamine in the medial prefrontal cortex during spontaneous and naloxone-precipitated opiate abstinence", *Psychopharmacology*, **122**, 202-205.
- Benjamin, L. S. (1996): *Interpersonal Diagnosis and Treatment of Personality Disorders*, 2. edizioa, Guilford, New York.
- Bernstein, D. P.; Stein, J. A. eta Handelsman, L. (1998): "Predicting personality pathology among adult patients with substance use disorders: Effects of childhood maltreatment", *Addictive Behavior*, **23**, 855-868.

- Birnbaum, K. (1914): *Die psychopathischen verbrecher (Psychopathic criminals)*, Lipzig, Tieme.
- Blair, R. J. R. (2003): "Neurobiological basis of psychopathy", *The British Journal of Psychiatry*, **182** (1), 5-7.
- Bland, R. C.; Newman, S. C.; Orn, H. eta Stebelsky, G. (1993): "Epidemiology of pathological gambling in Edmonton", *Canadian Journal of Psychiatry*, **38**, 108-112.
- Bowlby, J. (1944): "Forty-four juvenile thieves: Their characters and home lives", *International Journal of Psycho-Analysis*, **XXV**, 19-52.
- Burke, J. D.; Loeber, R. eta Lahey, B. B. (2007): "Adolescent conduct disorder and interpersonal callousness as predictors of psychopathy in adults", *Journal of Clinical Child and Adolescent Psychology*, **36**, 334-346.
- Cadore, R. J.; Yates, W. R.; Troughton, E.; Woodworth, G. eta Stewart, M. A. (1995): "Genetic-environmental interaction in the genesis of aggressivity and conduct disorders", *Archives of General Psychiatry*, **52** (11), 916-924.
- Cadore, R. J.; Cain, C. A.; Troughton, E. eta Heywood, E. (1985): "Alcoholism and antisocial personality: interrelationships, genetic and environmental factors", *Archives of General Psychiatry*, **38**, 965-969.
- CIE 10. (1992): *Trastornos mentales y del comportamiento*, Décima Revisión de la Clasificación Internacional de las Enfermedades, Organización Mundial de la Salud, Madril.
- Cleckley, H. (1941): *The Mask of Sanity*, Mosby, St. Louis, MO.
- Cloninger, C. R. (1987): "A systematic method for clinical description and classification of personality variants. A proposal", *Archives of General Psychiatry*, **44**(6), 573-588.
- Cooke, D. J. (1994): *Psychological disturbance in the Scottish Prison System: Prevalence, precipitants, and policy*, Scottish Home and Health Department, Edinburgh.
- Crick, N. R. eta Grotpeter, J. K. (1995): "Relational aggression, gender, and social-psychological adjustment", *Child Development*, **66** (3), 710-722.
- Dabbs, J. M. eta Morris, R. (1990): "Testosterone, social class, and antisocial behavior in a sample of 4,462 men", *Psychological Science*, **1**, 209-211.
- Elliott, C. eta Gillett, G. (1992): "Moral sanity and practical reason", *Philosophical psychology*, **5**, 1, 53-67.
- Esquirol, J. E. D. (1837): *Les malades mentales*. Berrargitalpena, 1965: *Mental Maladies*, Hafner Press, New York.
- Eysenck, H. J. (1964): *Crime and personality*, Routledge & Kegan Paul, Londres.
- , (1981): "El modelo de condicionamiento en el proceso de socialización", *Análisis y Modificación de Conducta*, **7** (14-15), 5-29.
- , (1995): "Un modelo de personalidad: rasgos generales", in M. D. Avia eta M. L. Sánchez, *Personalidad: aspectos cognitivos y sociales*, Pirámide, Madril, 229-267.
- Eysenck, H. J. eta Eysenck, S. B. G. (1976): *Psychoticism as a dimension of personality*, Hodder and Stoughton, Londres.
- Fergusson, D. M.; Lynskey, M. T. eta Horwood, L. J. (1993): "The effect of maternal depression on maternal ratings of child behavior", *Journal of Abnormal Child Psychology*, **21**, 245-270.
- Garrido, V. eta López, P. (2006): *El rastro del asesino*, Ariel, Bartzelona.
- Hare, R. D. (1991): *The Revised Psychopathy Checklist*, Multi-Health Systems Toronto, Ontario, Canada.
- , (1993): *Without conscience: The disturbing world of the psychopaths among us*, Pocket Books, New York.

- Harpur, T. J.; Hakstian, A. R. eta Hare, R. D. (1988): "Factor structure of the Psychopathy Checklist", *Journal of Consulting and Clinical Psychology*, **56**, 741-747.
- Hart, S. D.; Forth, A. E. eta Hare, R. D. (1991): "The MCMI-II as a measure of psychopathy", *Journal of Personality Disorders*, **5**, 318-327.
- Hesselbrock, M. N.; Meyer, R. E. eta Keener, J. J. (1985): "Psychopathology in hospitalized alcoholics", *Archives of General Psychiatry*, **42**, 1050-1055.
- Hwu, H-G.; Yeh, E. K. eta Chang, L. Y. (1989): "Prevalence of psychiatric disorders in Taiwan defined by the Chinese diagnostic interview schedule", *Acta Psychiatrica Scandinavica*, **79**, 136-174.
- Loranger, A. W.; Sartorius, N.; Andreoli, A.; Berger, P.; Buchheim, P.; Channabasavanna, S. M. eta Iankideak (1994): "The International Personality Disorder Examination", *Archives General Psychiatry*, **51**, 215-224.
- Kohut, H. (1971): *The Analysis of the Self: A Systematic Approach to the Psychoanalytic Treatment of Narcissistic Personality Disorders*, International University Press, New York.
- Kraepelin, E. (1915): *Psychiatrie* (8. ed.), Verlag von Johann Ambrosius Barth, Leipzig.
- Lilienfeld, S. (1994): "Conceptual problems in the assessment of psychopathy", *Clinical Psychology Review*, **14**, 17-38.
- , (1998): "Methodological advances and developments in the assessment of psychopathy", *Behaviour Research and Therapy*, **36**, 99-125.
- Loeber, R.; Brinthaup, V. eta Green, S. (1990): "Attention deficits, impulsivity, and hyperactivity with or without conduct problems: Relationships to delinquency and unique contextual factors", in R. McMahon eta R. Peters (arg.), *Behavior disorders of adolescence: Research, intervention, and policy in clinical and school settings*, Plenum Press, New York, 39-61.
- Louth, S. M.; Williamson, S.; Alpert, M.; Pouget, E. R. eta Hare, R. D. (1998): "Acoustic distinctions in the speech of male psychopaths", *Journal of Psycholinguistic Research*, **27**, 375-384.
- Lynam, D. R. (1996): "The early identification of chronic offenders: Who is the fledgling psychopath?", *Psychological Bulletin*, **120**, 209-234.
- Marcus, D. K.; John, S. L. eta Edens, J. F. (2004): "A taxometric analysis of psychopathic personality", *Journal of Abnormal Psychology*, **113** (4), 626-635.
- McBurnett, K.; Lahey, B. B.; Rathouz, P. J. eta Loeber, R. (2000): "Low salivary cortisol and persistent aggression in boys referred for disruptive behavior", *Archives of General Psychiatry*, **57**, 38-43.
- McCord, W. eta McCord, J. (1964): *The Psychopath: An essay on the criminal mind*, Van Nostrand Reinhold, New York.
- Moss, H. B.; Yao, J. K. eta Panzak, G. L. (1990): "Serotonergic responsivity and behavioral dimensions in antisocial personality disorder with substance abuse", *Biological Psychiatry*, **28**, 325-338.
- Norden, K. A.; Klein, D. N.; Donaldson, S. K.; Pepper, C. M. eta Klein, L. M. (1995): "Reports of the early home environment in DSM-III-R personality disorders", *Journal of Personality Disorders*, **9**, 213-223.
- Organización Mundial de la Salud. (1992): *CIE 10: Trastornos mentales y del comportamiento. Décima Revisión de la Clasificación Internacional de las Enfermedades*, Meditor, Madrid.
- Pajer, K.; Gardner, W.; Rubin, T.; Perel, J. eta Neal, S. (2001): "Decreased cortisol levels in adolescent girl with conduct disorder", *Archives of General Psychiatry*, **58** (3), 297-302.
- Patrick, C. J. (2000): "Emociones y psicopatía", in A. Raine eta J. Sanmartín (arg.), *Violencia y psicopatía*, Ariel, Barcelona, 89-118.



- Patrick, C. J.; Zempolich, K. A. eta Levenston, G. K. (1997): "Emotionality and violent behavior in psychopaths: A biosocial analysis", in A. Raine; D. Farrington; P. Brennan eta S. A. Mednick (arg.), *The biosocial bases of violence*, Plenum Press, New York, 145-161.
- Pinel, P. (1806) *A Treatise on Insanity, in which are Contained the Principles of a New and More Practical Nosology of Maniacal Disorders than has yet been Offered to the Public*, D. D. Davis-en itzulpena (W. Todd, Sheffield); jatorrizko argitalpena frantsesez 1801ean.
- Pollock, V. E.; Briere, J.; Schneider, L.; Knop, J.; Mednick, S. A. eta Goodwin, D. W. (1990): "Childhood antecedents of antisocial behavior: Parental alcoholism and physical abusiveness", *American Journal of Psychiatry*, **147**, 1290-1293.
- Raine, A.; Lencz, T.; Bihrl, S.; Lacasse, L. eta Colletti, P. (2000): "Reduced prefrontal gray matter volume and reduced autonomic activity in antisocial personality disorder", *Archives of General Psychiatry*, **57**, 119-127.
- Robins, L. N. (1978): "Sturdy childhood predictors of adult antisocial behavior: Replication from longitudinal studies", *Psychological Medicine*, **8**, 611-622.
- Rutter, M. eta Smith, D. J. (arg.). (1995): *Psychosocial Disorders in Young People. Time Trends and Their Causes*, John Wiley & Sons, Chichester.
- Sato, T. eta Takeichi, M. (1993): "Lifetime prevalence of specific psychiatric disorders in a general medicine clinic", *General Hospital Psychiatry*, **15**, 224-233.
- Siever, L. eta Trestman, R. L. (1993): "The serotonin system and aggressive personality disorder", *International Clinical Psychopharmacology*, **8 (Suppl. 2)**, 33-39.
- Stormshak, E. A.; Bierman, K. L.; McMahon, R. J. eta Lengua, L. J. (2000): "Parenting practices and child disruptive behaviour problems in early elementary school", *Journal of Clinical Child Psychology*, **29**, 17-29.
- Torgersen, S.; Kringlen, E. eta Cramer, V. (2001): "The prevalence of personality disorders in a community sample", *Archives of General Psychiatry*, **58**, 590-596.
- Turkat I. D. (1990): *The Personality Disorders: A Psychological Approach to Clinical Management*, Pergamon, New York.
- Williamson, S. E. (1991): *Cohesion and coherence in the speech of psychopathic criminals*. Unpublished doctoral dissertation, University of British Columbia, Vancouver, Kanada.
- Williamson, S.; Harpur, T. J. eta Hare, R. D. (1991): "Abnormal processing of affective words by psychopaths", *Psychophysiology*, **28**, 260-273.

